

## **FAKULTATEAREN OHIKO BATZARRAREN AKTA** **(2022ko azaroaren 16a)**

### **Bertaratuak eta bertaratu ez direnak (IOAko 22.2 artikulua)**

#### **Dekanotza Taldea**

1. Del Valle Loroño, Ana Irene – dekanoa
2. Arlucea Ruiz, Esteban - idazkaria
3. Doblaz Pozo, Patxi – dekanordea
4. De la Peña Varona, Alberto- dekanordea
5. Casado del Río, Miguel Ángel- dekanordea
6. Ayestarán Yarza, Alazne- dekanordea

#### **Administrazio burua**

7. Asensio Espina, Kizitiñe

#### **Irakasle eta ikertzaile iraunkorrak**

8. Davila Legeren, Andrés
9. Meso Ayerdi, Koldo
10. Lasaga Sanz, Rafael
11. Novo Arbona, Ainhoa (*bertaratu ezina adierazi du*)
12. Ganzabal Learreta, María
13. Lavía Martínez, Cristina
14. Antolín Iría, Enrique
15. Ispizua Uribarri, Marian
16. Amurrio Vélez, Mila
17. Miguel Saez de Urabain, Ainara (*bertaratu ezina adierazi du*)
18. Pérez Da Silva, Jesús Ángel (*bertaratu ezina adierazi du*)
19. Apodaka Ostaiakoetxea, Eduardo
20. Camacho Markina, Idoia
21. García Ureta, Irene
22. Usín Enales, Sandra
23. Blas Mendoza, Asier (*ez da bertaratu*)
24. Otero Gutiérrez, Beatriz
25. Beaskoetxea Gangoiti, José M<sup>a</sup>
26. Martínez Herrero, M<sup>a</sup> José (*bertaratu ezina adierazi du*)
27. Orueta Estívariz, Gorka
28. Mendiguren Galdospin, Terese
29. Tellería Herrera, Imanol
30. Lazcano Brotons, Íñigo (*ez da bertaratu*)
31. Larrondo Ureta, Ainara

#### **Gainerako irakasle eta ikertzaileak**

32. Ormazabal Gastón, Andere (*ez da bertaratu*)
33. Iturbe Tolosa, Andoni (*ez da bertaratu*)

#### **AZPko langileak**

34. García Vázquez, M<sup>a</sup> José
35. Ocerin Beraza, Isabel
36. Kanpandegi Iturbe, Jon Ander
37. Laniella Fernández, Igor (*bertaratu ezina adierazi du*)
38. Arandia Urriaga, Igone

#### **Ikasleak**

39. Rino Pardo, Celia
40. Figueroa Hernández, Agustina (*ez da bertaratu*)
41. Eriz Ávila, Lorea (*ez da bertaratu*)
42. González Cortez, Álvaro Alejandro (*ez da bertaratu*)
43. Lakuntza Bakaikoa, Mikel Adur (*ez da bertaratu*)
44. Apaolaza López, Naroa (*ez da bertaratu*)
45. Urizarbarrena Trueba, Nahia (*ez da bertaratu*)
46. Martínez de Albéniz Casales, Ainara (*ez da bertaratu*)
47. De la Torre Landera, Iraia (*ez da bertaratu*)

2022ko azaroaren 16an (asteazkena), 13:00ak direnean, UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Batzordea bildu da, bigarren deialdian eta ohiko bilkuran, eskatutako quoruma egiaztatu ondoren, dekanoa buru dela, gai zerrendako puntu hauek aztertzeko:

#### **1. Aurreko akta irakurri eta, ontzat joz gero, onartzea**

Batzarrak aztertu ondoren, 2022ko irailaren 28ko akta onartu da.

#### **2. Dekano andrearen txostena**

Txostena egin aurretik, esku hartzearen hasiera aprobetxatu du batzarkide berriari -Andere Ormazabal- ongietorria emateko; Estitxu Garai ordeztuko du. Bestalde, bertaratu guztiei gogorarazi die duela gutxi erretiratu zen kidea, Ricardo Miralles, hil egin dela. Bere izenean eta Batzarraren izenean doluminak ematen dizkie familiari, sailari eta lagunei.

Era berean, Imanol Zubero irakaslea zoriondu du Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Elkartearen Gizarte Saria 2022 jasotzeagatik.

Azkenik, zorionak azken Batzarretik plazak defendatu dituztenei.

Hitzaurre horren ostean, txostenari ekin dio, eta jarraian zehaztutako gaietan oinarritu da.

Hasteko, energia kontsumoa murrizteko neurriak aipatu ditu, honako hauetan oinarrituak: eraikinaren tenperatura murriztea eta haren irekiera ordutegia murriztea abenduaren 27tik 30era. Tenperaturari dagokionez, badaki alde handia dagoela eraikinaren eremu batzuetatik beste batzuetara; beraz, agerikoa bada zenbait ingurutan igotzeko beharra, eskatu du zuhurtziaz eta neurritz egiteko.

Ikastegiaren irekiera ordutegia aipatutako astean murrizteari dagokionez, adierazitako egunetan goizez zabalduko da, udako ordutegiarekin.

Jarraian, Fakultatearen Autobabes Plana aipatu du. Plan hori dagoeneko amaitu da eta Eusko Jaurlaritzan erregistratzeko zain dago (berehala egingo da), derrigorrezko txertatze ziurtagiria egin ostean. Horren ondorioz (plana), ebaluazio simulakroa egin zen urriaren 26an.

Akademia antolakuntzako gaiari dagokionez, ikasturte honetako GRALen adjudikazioa nabarmendu du; 517 adjudikatu dira urriko eta azaroko txanden artean.

Ikastegitik kanpoko proiektzioko jardueri dagokionez, jakinarazi du abenduan hasiko direla batxilergoko ikasleak, ikastegietako orientatzaileak eta gurasoak orientatzeko jarduerak. Zehazki, hilaren 12an bilera bat egingo da orientatzaileekin; urtarrila eta otsaila artean orientazio unibertsitarioko bilerak egingo dira: urtarrilaren 28an la Bella Eason, otsailaren 4an Vitoria-Gasteizen eta otsailaren 11n Bilbon. Ate irekien jardunaldiak martxoaren 25ean izango dira.

Amaitzeko, araudiaren erreforma berriak jakinarazi ditu, 214 zenbakiko eta azaroren 9ko EHAA adierazitakoak: IOAko aldaketak, sailen OAK, hauteskunde araudi orokorra eta errektorearen hautaketa.

### **3. Ikastegiko 2022-2026 aldiko estrategia plana**

Hitza eman zaio Plangintza Estrategiko eta Kalitatearen dekanordeari eta hark oinarrizko puntuak aurkeztu ditu. Ikastegiko unibertsitate komunitateko sektore guztiek plana egiteko izan duten konpromisoa nabarmendu du, eta eskerrak eman dizkie egindako lanagatik eta ahaleginagatik.

Plana azaldu ostean (dokumentua batzarkideen esku dago), Mila Amurriok euskararen garrantzia nabarmendu du, eta gogorarazi du Euskaraldia hasiko dela; hala, guztiak parte hartzera gonbidatu ditu.

Esku hartzearen ostean, Batzarrak Ikastegiko 2022-2026 aldiko estrategia plana onartu egin du.

### **4. Kalitate Batzordearen araudia aldatzea**

Plangintza Estrategiko eta Kalitatearen dekanordeak berriz ere hartu du hitza, dekanok andreak eskatuta. 4. artikulua birgaitzearen arazoia zein den galdetu du: ikastegiak graduondokoak kudeatzeak graduondoko kideak Batzorde horretan sartzeko dakar; horregatik, Batzordearen osatura aldatu behar da. Era berean, kide gehiegi izateak organoaren operatibotasuna murriztuko luke; hori da zenbait kolektibok kide gutxiago izateko arazoia.

Onartu egin da.

### **5. Graduak eta graduondoko plazen mugaren proposamena 22-23rako**

Dekano andreak honako proposamen hau azaldu du, eta Batzarrak onartu egin du. Graduak:

Kazetaritza, 180

Ikus-entzunezko Komunikazioa, 70

Publizitatea eta Harreman Publikoak, 120

Soziologia, 75

Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa, 75

Kazetaritza+Ikus-entzunezko Komunikazioa gradu bikoitza, 15

Kazetaritza+Publizitatea eta Harreman Publikoak gradu bikoitza, 15

Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa+Soziologia, 10

10 masterrei dagokionez:

EITB-Multimedia Komunikazioa UPV/EHU, 20

Gizarte Komunikazioa, 20

Ikasketa Feministak eta Generokoak, 25

Nazioarteko Ikasketak, 40 (% 10eko murrizketa aurreko ikasturtearekin alderatuta)

Gobernantza eta Ikasketa Politikoak, 27

Historia Garaikidea, 25

Ikerketa Ereduak eta Arloak Gizarte Zientzietan, 20

Komunitate Garapena eta Parte Hartzea, 30

Multimedia Kazetaritza, 20

Subiranotasuna Europako Herrietan, 20

## 6. Fakultateko eremuak erabiltzeko protokoloa

Dekano andreak nabarmendu du dokumentu hau berria dela, eta Ikastegiko espazio eskasa modu berdintsuan eta duinean erabiltzeko idatzi dela, lehentasunak aintzat hartuta. Era berean, II. eranskin gisa, ikerketa lokalak esleitzeko irizpideak gehitu ditu. Irizpide horiek dagoeneko onetsi ziren 2017ko uztailearen 21eko Batzorde Iraunkorrean. Hala, eranskin horren zati bat aldatu da, egungo egoerara egokitzeko, eta baldintza metagarri batzuk gehitu dira. Batzarrak onartu du.

## 7. Masterrak

Dekano andreak eskatuta, idazkari jaunak aztergaien zerrendako puntu hau aurkeztu du. Puntuak Batzarrean bozkatu beharreko hiru alderdi ditu:

- A) Feminismoa eta Genero Ikasketak Masterreko Batzorde Akademikoa aldatzea. Idazkari jaunak gogorarazi du masterrak txertatzeko, aldatzeko eta ezabatzeko araudiak eskatzen duela batzorde horietako kideen izendapena Batzarrean onartzeko, eta, ondoren, Graduondoko Batzordera bidaltzeko. Jone Martínez Palacios kidearen ordezkia onartzea, María Ruiz Torradoren ordezkia. Onartu da.
- B) Unibertsitate arteko hitzarmenaren Batzarraren aldeko txostena, "Historia Garaikideko Unibertsitate Masterra" programa elkarrekin garatzeko (2023/24 ikasturtera arte indarrean egongo da). Aldeko txostena egin da.
- C) "Historia Garaikideko Unibertsitate Masterra" garatzeko unibertsitate arteko hitzarmenean gehitutako aldaketa nabarmenen aldeko txostena (aurreko aldeko txostenaren ostean); egungo txostena iraungitzean indarrean sartuko da. Aldeko txostena egin da.

## 8. Batzordeak eta Epaimahaiak

Hasierako baldintzak onartu dira, Berdintasun Batzordearen zuzenketa bat izan ezik. Zuzenketa horren arabera, M<sup>a</sup> José Martínez Herreroren ordezkia Maria Gorosarri González agertu behar da. Zuzenketa horretaz ohartarazi eta hori konpondu ostean, onartu egin dira.

## 9. Azpiegituren erabilera baimentzea

Batzarrak onartu egin du Bizkaia Aretoan honako ekitaldi hauek egitea:

- Immigrazioa eta Integrazioaren EAEko XII. jardunaldiak. Dagoeneko egin dira, 2022ko urriaren 20-21ean.
- Basquedokfestivalen III. edizioa, 2022ko azaroaren 4-6an ospatua.
- Harreman Publikoen Ikerketei buruzko XVII. Nazioarteko Kongresua; 2023ko ekainaren 28-30an egingo da.
- Publizitatea eta Harreman Publikoak Graduako Sormena irakasgaiko irakasleen sinposio nazionala.

## 10. Irakasleen plazak

Batzarrak onartu egin ditu Ikerbasqueko bi ikertzaile kontratatuzko proposamenak (irakasleen errektoreordeak 2011ko maiatzaren 2an emandako ebazpeneko 11.2 artikulua arabera); Igor Calzada, Historia Garaikideko sailak proposatuta, eta Roberta Rutigliano, Soziologia eta Gizarte Langintza sailak proposatuta.

## 11. Galde-eskeak

Ez dago.

Eta, beste aztergairik ez dagoenez, bilera 14:15ean amaitu da, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede ematen dut, Leioan, 2022ko azaroaren 16an.

Dekanoak O.E.  
**Ana Irene Del Valle**

Idazkari akademikoa  
**Esteban Arlucea**